

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

SEGURTASUN SAILA

2221

EBAZPENA, 2023ko apirilaren 27koa, Segurtasun Saileko Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordearena, zeinaren bidez iragartzen baita noiz jarri den Gurenet atarian 2023ko apirilaren 20ko Ebazpena, Ertzaintzako zenbait lanpostu merezimendu-lehiaketa orokorraren (C250) sistemaren bidez hornitzeko prozeduran emandakoa.

Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordearen 2022ko abenduaren 5eko Ebazpenaren hirugarren ebazpen-zatian ezarritakoarekin bat etorriz – ebazpen horren bidez, Ertzaintzako karrerako funtzionarioentzat gordetako zenbait lanpostu hornitzeko deialdia onartu eta argitaratzen da –, eta Segurtasun Sailaren egitura organiko eta funtzionalari buruzko urtarrilaren 19ko 6/2021 Dekretuak ematen dituen eskumenak baliatuz, honako hau

EBAZTEN DUT:

Argitara ematea 2023ko apirilaren 21ean jarri dela Segurtasun Sailaren Gurenet atarian Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordearen 2023ko apirilaren 20ko Ebazpena, zeinaren bidez zuzentzen baitira Ertzaintzako zenbait lanpostu merezimendu-lehiaketa orokorraren (C250) sistemaren bidez hornitzeko prozeduran onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda onesten duen 2023ko martxoaren 21eko Ebazpenean dauden akats materialak.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko apirilaren 27a.

Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordea,
MIREN GOITIA GABIOLA.